

SEGMENTAZIOA

Gure programaren salmenta eta erabilpenerako beste enpresa batzuekin lan egingo dugu gure bezeroei iristeko eta zerbitzu hau erabil ahal izateko. Gure merkatu mota merkatu-nitxoa izango da, eta hauek izango dira gure bezeroak:

- Ospitaleak: zentro publiko hauek programa informatiko hau erabiliko dute edozein adineko pertsonentzako eta doanik erabiliko dute.



- Zentro pribatuak: Hauek zerbitzu bera emango dute kobratuz.



Ospitaleek eta horrelako instituzioek tratamenduan hobekuntzak izateko beharra dute. Gainera, gaixotasunak aurreikusiz programaren laguntzaz, medikuen, hau da, profesionalen lana asko erreztuko litzateke.

